



KONTROLPEKO ELKARRIZKETA

BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY

Partaideek binaka jardungo dute gai zehatz bati buruzko eztabaidan. Ariketaren helburua entzute eta laburbiltze gaitasunean sakontzea da; beraz, bakoitzak bestearen argudioak aditu eta laburtu beharko ditu norberarenak aurkeztu aurretik.

AIM OF THE ACTIVITY

Elkar entzuten eta ulertzen ikastea. Testuinguru ezberdinetatik datozen pertsonen arteko elkarrizketak gauzatu ahal izatea.

EXPECTED OUTCOMES

Bide alternatiboak hizketaldi/elkarrizketetarako. Elkarrizketak prestatzea hizkuntza hegemonikoa ez darabilten hiztunentzat edota hitzez adierazteko zailtasunak dauzkaten pertsonentzat.

INFORMATIONS FOR TRAINERS

EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED

Aholkularitza eta aditze gaitasuna.

INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES

Gela handi bat edo bi, eztabaida errazteko.

LENGTH

Sarrera + elkarrizketak + feedbacka 30 minutu gehien jota.

MATERIALS

Ez da behar.

DESCRIPTION

HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE

Partaide taldea bikotetan banatu. Eztabaidarako gaiak (errealak) aurkitu, eta horiei buruzko ikuspuntu ezberdinak ematen saiatu. Ostean utzi elkarrekin hitz egiten, gelako gune ezberdinetan edo gela

ezberdinetan. A pertsona hasten bada hizketan, B pertsonak bukatu arte itxaron behar du, eta hark bukatutakoan besteak esandakoa laburtuko du bere hizketaldiari hasiera emateko, gero ekarpena egin edo erantzuteko. Orduan Ak itxarongo du, Bk esana laburtzeko, eta horrela jarraituko dute, txandaka 10 bat minutuz. Hezitzaile bikoteen inguruan eta adi ibiliko da, aditze eta laburtze jardunari buruzko esku-hartze eta ekarpen motzak eginez. Bukatzeko, jardunaren zailtasunei buruzko feedbacka.

RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO

RISK AND POSSIBLE ADAPTATION

VARIATIONS

TIPS FOR TRAINERS

Ariketa ona da hau elkarrizketen moduluaren sarreran erabiltzeko, eta hezitzaileak azpimarratu beharko luke gonbidatuak aditzearen garrantzia, elkarrizketa ez dadin mugatu aldeztatik aurretik prestatutako galderetara.

PARTICIPANTS

ANALYSIS AND EVALUATION

Hezitzaileak ariketan zehar egingo duen behaketarekin bat egingo die feedbacka partaideei. Partaideek entzuten eta laburtzen jardutearen esperientzia baloratuko dute. Zer ikasi dute horretatik?

SCHEDULING

Elkarrizketa moduluaren hasieran.